




# **HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA**

**2013 – 2014 IKASTURTEA**

**HEZKUNTZA IKUSKARITZA  
E.A.E.**





## HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA 2013-2014ko IKASTURTEA

### 1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren Planak Ikuskaritzak ikastetxeetan eta Administraziooko beste toki batzuetan jarduteko erabiltzen dituen bideak dira. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa ere agertzen dute.

Ikuskaritzaren jarduerak lau eremutan biltzen dira:

- Ebaluazioa.
- Arau-kontrola.
- Aholkularitza, orientabidea eta informazioa.
- Lankidetzak.

Haren funtzioak betez, irakaskuntzaren kalitatea eta zuzentasuna bermatzeko hezkuntza-legeriak ematen dizkion eskuduntzak erabiltzen ditu Hezkuntza Ikuskaritzak.

Ikastetxeei dagokienez, ikastetxeen helburu nagusiari, hots, ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat emateari eta ikasteko prozesuetan arrakasta izatea lortzeari, beste balio bat emateko izan behar dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeak lagungarri.

Hezkuntza-administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten zaizkion eskaeretan laguntza ematea eta eskatzen zaizkion txostenak, edo errealitatea ezagutzearen ondoriozkoak, arauzko bideak erabiliz ematea da Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa.

Hainbat urtetako planifikazio estrategiko batean sartzen diren urteko planen bidez planifikatzen ditu bere esku-hartzeak Hezkuntza Ikuskaritzak. 2013-2014ko ikasturterako Hezkuntza Ikuskaritzaren Plana 2011-2014ko Hiru Urteko Plan Orokorreko azken kurtsoari buruzkoa da. Zerbitzua emateko prozesuen maparen azken definizioan formulatutako prozesutik kudeatzen jarraituko du Ikuskaritzaren jarduerak eta hiru puntu hauetan konkretatzen da: ikastetxeen ikuskatzea, ebaluazioa (ikastetxeena eta pertsonena) eta eskaerei eman beharreko arreta.

Urteko Plan hau egiteko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Sailburuordetza eta Zuzendaritza desberdinen eskaerak, Zonalde Burutzekin Lurralde Arteko Koordinazio Batzordearen hausnarketak, ikastetxeetan esku-hartze globalaren balorazioei eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioari buruzkoak batez ere, Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesten emaitzak eta 2012-2013ko ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzari egin zaizkion barne eta kanpo aholkularitzen emaitzak hartu dira kontuan. Hori guztia memorian jaso da.

Aipatutako informazioaz gain, Urteko Plan hau 2012-2016ko gobernu-programa kontuan hartzen duen lehenengoa da, ikasleak hezkuntza-sistemaren ardatza izateko eta irakasleen eta zuzendaritza-taldeen hasierako eta etengabeko prestakuntza sustatzeko helburuari begira batez ere.

Dagoen informazio guztia jaso ondoren, 2013-2014ko ikasturterako Urteko Planak aurrera eramateko orduan ahalik eta eraginkorrena izaten saiatu behar du, baita jarduteko irizpideak bateratu ere.

Horretarako:

- Plantilak aurrera eramango dituen jardueren ahalik eta gehien planifikatzen saiatuko da, planifikatutako eta planifikatu gabeko lan-kargen artean egon beharreko oreka kontuan hartuta. Halaber, tresna eta argibide guztiak jarduerak hasi aurretik prest egoten saiatu da.
- Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalaren metodologia garatzeko orduan, faktore hauek azpimarratuko dira: eskola-emaizten azterketa, irakasleen ebaluazioari dagozkionak eta ebaluazio desberdinetan (diagnostiko-ebaluazioa, selektibitate-probak, praktika onei buruzko ikerketa ikastetxe eraginkorretan...) lortutakoak, eta emaitza horiek hobetzeko, hobekuntza-planen bidez, martxan jarriko diren curriculum- edota antolaketa-neurriak.
- Zuzendaritza-taldeari ez ezik, beste egitura batzuei (OOG/Eskola Kontseilua, departamentuak, zikloak, koordinazio pedagogikoko batzordea...) ere eragingo die Ikuskaritzak ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeak eta irakasleek ere espezifikoki izan behar dute Ikuskaritzaren jarduera desberdinen hartzaile zuzenak.
- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioan emango da eskola-zuzendaritzen jarduera bost dimentsioetan hobetzeko laguntza, lidergoak ikasleek ikasteko prozesuetan duen eragin positiboa indartuz.
- Irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko orduan Ikuskaritzaren esku-hartzea areagotuko da, proiektu espezifikoei lotutako zerbitzu-eginkizunen ebaluazioan zehatzago esanda.
- Ikuskaritza-funtzioak lanpostuetan zerbitzu-eginkizunaren erregimenean ari direnen ebaluazioa egingo du.

Ikuskariaren prestakuntza eta gaurkotzea funtsezkoak dira dituzten funtzioak eraginkortasunez betetzeko orduan. Zentzu horretan, lana orientatzeari eta jarduera garrantzitsuenak martxan jartzeko irizpideak bateratzeari begira egin beharreko ahaleginak areagotuko dira ikasturte honetan, baita jarduera horiek nola egiten ari diren eta, ondorioz, sartu beharreko aldaketa eta hobekuntzei buruzko begi-bistako informazioa izateko prozedurak ere.

Hezkuntza Ikuskaritzak ISO ziurtagiria berritu du 2012-2013ko ikasturtean, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera. Barne eta kanpo auditoriak funtsezko elementuak dira gure zerbitzua hobetzeko orduan, haien emaitzek gai batzuk agerian utzi dituzte, jarduera esanguratsueni zuzenean lotutako adierazleak bilatu eta garatea esate baterako, eta Urteko Plan honek emango die jarduera horiei arreta berezia.

Azkenik, EAEko Hezkuntza ikuskariaren kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioen ondoren gertatu den plantilaren egonkortasun handiagoak, 25 ikuskari sartu dira, lagungarri izan behar du plan hau garatzeko prozesuan lortzen diren emaitzak hobetzeko orduan.

## 2.- KALITATE POLITIKA

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitate-politika, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza dena eta Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek adostua, Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatearen eskuliburuan azaltzen dena da.

## 3.- HELBURUAK

Urteko Plan honetan sartzen diren helburuak hauek dira:

- Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxeetan kontrolatzeko eskatzen duen programa eta proiektuen garapena ikuskatzea.

- Indarreko legeria eta ikasturte honetan batez ere, itunpeko ikastetxeetako irakasleen titulazioak, arloak emateko araudia eta irakasleen lanaldiak betetzen diren kontrolatzea.
- Indarreko legeriaren arabera hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak errespetatzen diren bermatzea, osotasun fisiko eta emozionala errespetatzeko eta erabateko hezkuntza elkarbizitza positiboaren giro batean jasotzeko ikasleen eskubideari begira batez ere.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa- eta kudeaketa-eredua gaurkotzea.
- ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea, zerbitzua hobeto emateko.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.
- Urteko Plan honek eragindako premien arabera ikuskariak prestatzea.
- Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz euskararen erabilpena sustatzea.

#### **4.- 2013-2014ko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK**

Hezkuntza-sistema hobetzeko oinarria den aldetik, ikastetxeen funtzionamendua ezagutzea exijitzen dio indarreko legeriak Hezkuntza Ikuskaritzari. Exijentzia horri erantzuna emateko prozedura eraginkor bat bilatu nahian, erreferentziako ikuskariak bere ikastetxeetan sistematikoki jarduteko metodologia bat erabili du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak eta metodologia horri esku-hartze globala esaten diogu.

Ikastetxeari, haren ezaugarriei, dituen arazo nagusiei eta haren bilakaerari buruzko ikuspegi globala eduki ahal izateko esku hartzeko era bat planteatzean datza metodologia hori. Esku hartzeko era horrek ikastetxean era integratuan egin beharreko jarduera guztiei, Ikuskaritzaren hiru urteko eta urteko planetan planteatutako helburuekin koherentzian, eragiten die eta indarreko legeria behar bezala betetzeko eta hezkuntza-eskaintzaren kalitatea hobetzeko ikastetxeei orientabidea ematea du azken helburua.

Planteamendu honetatik eta aurreko ikasturtearen ebaluaziotik ateratako ondorioetatik, memorian agertzen dira, abiatuta, Hezkuntza Ikuskaritza honek jarduteko oinarrizko ildo hauek ezartzen ditu:

##### **4.1. Ikastetxeen barne eta kanpo ebaluazioak.**

2013-2014ko ikasturtearen lehen hiruhilekoan 2013ko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzei buruzko txostenak jasoko dituzte ikastetxeek. Halaber, 2012ko PISAren eta ikastetxe eraginkorren praktika onei buruz EHUk egindako ikerketaren emaitzak emango dira argitara. Kanpo emaitza hauekin eta ikastetxe bakoitzaren barne emaitzekin, hausnarketa egin eta eztabaidatzeko prozesu baten ostean, ikastetxe bakoitzak hobekuntza-plan bat egingo du, Hezkuntza Ikuskaritzak emango dio oniritzia eta 2013-2014ko ikasturteko hirugarren hiruhilekotik aurrera jarriko da martxan. Ikuskaritza honek sustatuko du hobekuntza-plan horiek egiteko prozesua, aztertuko ditu, oniritzia emango die eta praktikan jartzeko prozesuaren jarraipena egingo du.

##### **4.2. Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa:**

Ikasturte honetan hiru ebaluazio-egoera gertatuko dira:

- a) 22/2009 dekretuaren arabera 2010ean lau kurtsoarako izendatuak izan ziren zuzendarien lehen agintaldiko azken kurtsoari buruzkoa.
- b) 2013an izendatuak izan diren eta lehen agintaldiari hasiera ematen dioten zuzendariekin gertatuko dena.

c) 2009ko ikasturtean lehen aldiz izendatuak izan ziren eta jarraitzen duten zuzendarien bigarren agintaldiko lehen kurtsoari buruzkoak.

Egoera honen eta aurrera eraman den metaebaluazioaren ondorioz, aldaketak gertatu dira prozesua eta lan egiteko tresnak diseinatzeko orduan. Horregatik, prestakuntza-prozesu batekin eman beharko zaio ikasturteari hasiera, aldaketa horiek ikuskari guztiei jakinarazteko eta prozesuko jarduerak ikasturtean zehar gauzatzeko prozesuaren jarraipena egiteko.

#### **4.3. Saileko programa eta proiektuen kontrola eta jarraipena.**

MET programaren jarraipena egingo da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta HAUSPOA proiektuarena DBH ematen duten ikastetxeetan.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan HEZIBI txandakako prestakuntza-programaren jarraipena egiten jarraituko da 2013-2014ko ikasturtean. 2013-2014ko programa ezartzeko prozesua kontrolatuko du Hezkuntza Ikuskaritzak, baita 2012-2013ko programa garatzeko prozesuaren jarraipena egin ere.

#### **4.4. Elkarbizitza eta berdinen arteko tratu txarrak.**

V92 aplikazioaren bidez salatutako tratu txarren kasuak jasoko dira ikasturte honetatik aurrera eta horrek aldaketa batzuk ekarriko ditu informazioa kudeatzeko prozesuan. Informazioa kudeatzeari begira, ikuskariak eta administrazio-pertsonala prestatzeko fase bat gauzatu beharko da ikasturtearen hasieran eta beste batzuk ikasturtean zehar, irizpideak bateratzeko eta, kasuak lantzeko erabili beharreko prozedurari begira, ikuskarien jarduera hobetzeko.

Elkarbizitza-planaren eredu bat ere aurkeztuko da, plan hori ikastetxeetan egin eta berrikusteko prozesua errazteko. Elkarbizitza-planak eta ikastetxeetan praktikan jartzeko prozesua ikuskatzeko prozedura bat planifikatuko da ikasturtean zehar.

#### **4.5. Ikastetxeetan globalki jardutea erraztuko duten tresnak egitea.**

2013ko irailaren 30ean itxiko da 2011-12ko eta 2012-2013ko ikasturteetan ikastetxetan aurrera eraman den esku-hartze globalaren erregistroa eta Rn artxibatuko da, ikastetxeetan jasotako informazioa gal ez dadin.

Ikastetxean egin beharreko jardueraren ardatza izango diren urteko helburuak planteatuko ditu 2013-2014ko ikasturteetik aurrera Hezkuntza Ikuskaritzak. Ondorioz, esku hartzeko eta erregistro-unitatea ikasturtea izango dela interpretatuko da.

Ikasturtean egindako jarduerari buruzko informazio esanguratsua *ikastetxearen koadernoan* erregistratuta geratuko da. Eduki esanguratsuenak jasoko dituen eta ikastetxearen funtzionamendua hobeto ezagutzeko lagungarri izango den eredu bat (0 bertsioa) emango da ikasturtearen hasieran. Ikasturte bakoitzaren ohar eta balorazioak eredu horretan sartuko dira eta, horregatik, puntu indartsu eta ahulak errazago antzeman ahal izango dira, baita hobetzeko proposamenak ematea ere.

Ereduaren 0 bertsio hau ezartzen hasten denetik aurrera egokitzen eta hobetzen joango da eta ikasturtean zehar antzemango diren praktika onak sartuko ditu. Erregistro-eredu bat prestatzea da helburua eta eredu horrek Ikuskaritzak ikastetxeetan egindako esku-hartzeetan jasotako informazio esanguratsua, balorazio eta proposamenak eta jarraipena egiteko zehazten diren alderdiak arin eta erraz jasotzeko aukera emango dio Ikuskaritzari.

Ikastetxeetan egindako esku-hartzean lortu den informazioaren erregistroa bi eratan agertuko da, jardueren ezaugarrien arabera:

- Kudeatzeko sisteman eredu espezifiko bat ezarrita duten jarduerak: kudeatzeko tresnetan (V92, R, txostenak...) erregistratuko dira. Gainera, koadernoan jarduera horien aipamen bat sartuko da.
- Ikastetxean egiten den ohiko esku-hartzearen ondoriozko jarduerak: ikastetxearen koadernoan agertuko dira.

#### **4.6. Antolaketa-ereduaren gaurkotzea.**

Aurreikuspenen bidez, antolaketa-eredu berri bat eta funtzionatzeko agindu bat argitara emanez aldatuko da Ikuskaritza erregulatzen duen araudia.

Gainera, Ikuskaritza guztiaren inplikazioa eta esku-hartzea sustatzeko eta barne komunikazioa hobetzeko, lurralde planek jarduera inportanteenetariko bakoitzaren arduradun bat sartuko dute Ikuskaritzaren zonalde bakoitzean.

#### **4.7. Kudeatzeko sistemaren hobekuntza.**

Barne eta kanpo auditoriei buruzko txostenak aztertu izanaren ondorioz, jarduera zuzentzaileen planak ezarri dira eta plan horiek kudeatzeko sistema hobetzeko neurrien zati inportanteena dira (V. eranskina). Prozesu-adierazleak finkatuko dira, baita jarduera horiei balio erantsia emango dieten lorpen-adierazleak planteatu ere. Gaurko adierazleetako batzuk jarduera gauzatzeko prozesuaren kontrol-erregistro bihurtuko dira.

Gainera, V92 ezartzeko prozesuarekin jarraituko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren lanak kudeatzeko.

I. ERANSKINEAN kronograma, Ikuskaritzak ikasturtean egin dituen jarduera inportanteenak azaltzen dituena, agertzen da. II. ERANSKINAK Ikuskaritzaren Planeko prozesuak eta azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak sartzen ditu.

### **5.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK.**

2011-14ko Hiru Urteko Planean zehaztu eta Kalitatearen Eskuliburuan agertzen dena da Urteko Plan hau onartu arte indarrean dagoen Ikuskaritzaren prozesuen mapa. Urteko Plan hau onartzearen ondorioz, MP02 makroprozesuaren, zerbitzuak identifikatu eta taldekatze funtzionalaren mailan bakarrik ematea, egitura aldatzen da.

Alde batetik, azpiprozesuen kodetzea Ikuskaritzaren funtzioen (ebaluazioa, kontrola, aholkularitza eta lankidetzak) sailkapenaren arabera da. Haietako gehienak ebaluazio- eta kontrol-funtzioetan sartzen dira, aholkularitzak, funtsean, zeharkako izaera du (horregatik, ez dago azpiprozesu espezifikorik) eta lankidetzak, gehienbat, eskaerak eta jakinarazpenak eginez gauzatzen da.

Bestetik, Urteko plan honetan planteatzen den azpiprozesuen taldekatze funtzionalak azpiprozesuak ondorengo hiru taldeetan sailkatzeari ematen dio erantzuna:

**Ebaluazioa**

Ikastetxeen edota pertsonen ebaluazioarekin lotutako azpiprozesuak, haien oinarrizko lana ebaluazioa duten jarduerak. Haietarako prozedura espezifiko bat zehaztu da eta emaitza administrazioari edo interesatuei berei helarazi behar zaie.

**Ikastetxeen ikuskatzea**


Kontrol, ebaluazio, aholkularitza, orientabide eta informazioari lotutako azpiprozesuak ( esku-hartze globala deritzon metodologia erabiliz, batez ere, eta era sistematizatuan gauzatuko ditu erreferentziako ikuskariak bere ikastetxeetan).

**Eskaerei eman beharreko arreta**

Lankidetzaren funtzioari lotutako azpiprozesuak dira, berez. Gehienetan Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuen eskaerei eman beharreko erantzun gisa antolatzen diren jarduerak dira. Horrela sailka daitezke:

- 1) Lankidetzaren jarduteko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak, oso konplexuak izateagatik Ikuskaritzak berak jarduera horiek gainontzeko azpiprozesuak bezala definitu eta planifikatu behar dituen kasuetan.
- 2) Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenei erantzuna emateko jarduerak. Atal honetan Ikuskaritza Zerbitzuaren edozein hartzaileraren eskariz eta Ikuskaritzaren beraren ekimenez, egindako ebaluazio-, kontrol- eta aholkularitza-jardueren ondorioz, egin daitezkeen txosten guztiak sartzen dira.
- 3) Parte hartu eta lankidetzaren jarduteko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak, haien jabea Ikuskaritza bera ez den kasuetan (epaimahaietan, batzordeetan... parte hartzea).

Jarraian adierazten den legez geratzen da, prozesuen mapari begira, azpiprozesuen taldekatzearen aldaketa:



Aldaketa honek, halaber, Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatearen eskuliburuan adierazitako prozesuen mapa aldatzea dakar.

## 6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

**Ikuskaritzaren prestakuntza eta garapen profesionala** hobetzeko prozesuari ere eman nahi zaio Urteko Plan honetan garrantzia, garapen profesionalaren funtsezko zutabeetako bat baita prestakuntza. Prestakuntza hori aurrera eramateko era batzuk sustatuko dira:

- Planifikatutako jarduerak egiteko ikuskariei laguntza ematen dieten konpetentzia-elementuak eskaini nahi dituen da plan honi lotuta dagoen prestakuntza. Prestakuntza instituzionala deritzona da eta, normalean, ikasturtean zehar, ostiraletako bilkuretan, egiten da. Prestakuntza instituzional hau parte-hartzailea izatea proposatuko da, bilkuraren zati handi bat, ahal bada, lan praktikoari, talde txikietan edo prestakuntzan inplikatzeko sustatuko duten beste modalitate batzuen bidez, eskaini ahal izateko moduan.
- Prestakuntza instituzionalaren osagarri gisa, lana bateratzeari, esku-hartzea aurrera eramateko erari buruzko eztabaida profesionalari eta planifikatutako tresnak erabiltzeari eskaintzen zaizkien informazio- eta prestakuntza-saioak Ikuskaritzaren lanaren funtsezko beste zutabe bat dira, ematen baitute esku-hartzeetan erabili beharreko irizpideak bateratzeko aukera. Urteko Plan honek prestakuntza mota honi ematen dio lehentasuna.
- Euskararen erabilpena sustatzeari dagokionez, IRALE programaren aukerak, Ikuskaritzaren lanaren mugak kontuan hartuta, berriro ere erabiliko dira. Zehatzago esanda, 2013-2014ko ikasturtean, joan den ikasturtean egin zen legez, egingo da 5 liberazio-eguneko euskara ikastaro batean parte hartzeko eskaintza. Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzaren estilo-eskuliburua erredaktatzea planteatuko da.
- Bestetik, emango zaizkie ikuskariei izaera desberdinetako gertakari kolektiboetara, zientifikoak, teknikoak, profesionalak, kidegoari dagozkionak, elkartzeari lotutakoak edo sindikalgintzarekin zerikusia dutenak, joateko erraztasunak.

Zonalde-taldean koordinazioa garapen profesionala ahalbidetzeko beste modu bat da eta, horregatik, oreka bat egon beharko da prestakuntza instituzionalari eskaintzeko denboraren eta zonalde mailako bilerekin eskaintzen zaienaren artean. Zonaldeetan kasuak aztertzea garapen profesionalerako prozedura ona da.

IV. ERANSKINEAN, 2013-2014ko ikasturterako Ikuskaritzaren Prestakuntza Plana agertzen da.

## 7.- URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Urteko Plan hau zein mailatan betetzen den ebaluatzeko, Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek, zonalde burutzeekin egiten diren koordinazio-bileretan eta zonalde burutza horien eta zonalde mailako taldeen arteko bileretan, egingo dute horren jarraipena.

2013-2014ko ikasturtearen bukaeran Urteko Plan honen ebaluazioa egingo da, ondorengo alderdien azterketa eta ondorioak kontuan hartuta:

- Lurralde Arteko Batzordeak, ikasturtean egiten diren analisi eta balorazioetatik abiatuta, egiten duen Urteko Plan honen jarraipena, Ikuskaritzak egiten duen lanaren balorazio globala eta kalitatea kudeatzeko sistemaren eraginkortasunari buruz egiten dena.
- Urteko Planean aurreikusitako den eta, aurreikusita ez zegoen arren, egin den prestakuntza eraginkorra den edo ez neurtzea, baita indarreko Urteko Planean proposatutako helburuak lortzeko prozesuan eskuratu diren emaitzak ere (III. ERANSKINA).
- Hezkuntza Ikuskaritzari egin zaizkion barne eta kanpo auditorien emaitzak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko neurketak, baita hartzaile horien premiak zeintzuk diren jakitea ere.



- Hezkuntza Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Kalitate Politikaren egitekoa, ikuspegia eta baloreak berrikusteko eta kalitatea kudeatzeko sistemaren dokumentazioa egokitzeko prozesua berrikustearen emaitza.

Urteko Plan honen ebaluazioa sistema berrikusteko Ikuskaritza Nagusiak egin duen txostenean jasota geratuko da. Txosten horrek, gutxienez, atal hauek agertuko ditu:

- Kalitatea kudeatzeko sistemari eragin ahal dioten aldaketak proposatzea, baita kalitate politikan eta kalitate-helburuetan egin beharrekoak ere.
- Helburuak eta prozesu eta zerbitzu-adierazleak lortzeko prozesuan eskuratu diren emaitzak.
- Barne eta kanpo auditorien emaitzak.
- Prozesu eta zerbitzuetan gertatu diren ezadostasunak.
- Jarduera zuzentzaileen eta prebentziozkoen egoera.
- Hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.
- Iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Hobetzeko, oro har, gomendioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Lortutako ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 10a



José Antonio Romero Escobedo  
Hezkuntzako ikuskari nagusia

**IKUSKARITZAREN ESKU-HARTZE INPORTANTEENAK AZALTZEN DITUEN KRONOGRAMA. 2013-2014ko IKASTURTEA**

	2013				2014						
	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	
<b>Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa</b>	<b>Dokumentazioaren analisisia</b> 1. urtea, Ikastetxe Urteko Plana eta Zuzendaritza Proiektua  Gainontzeko urteak ikastetxe Urteko Planak				<b>O P O R R A K</b>	<b>Zuzendaritza taldekideekin elkarrizketak (zuzendaria. Ikasketa burua eta idazkaria)</b>				<b>Txostenak egitea</b>	
<b>Barne eta kanpo auditoriak</b>	<b>Aurreko Hobekuntza Planak kontrolatzea eta berrikustea</b>  2013-14 Ikastetxe urteko Plana					<b>Hobekuntza Plan Berrien onarpena Txostena itzultzea</b>  2013 Ebaluazio diagnostikoa					
<b>Zuzendari berrien selekzioa</b>										<b>Zuzendaritzarako hautagai berriak aukeratzeko prozesua</b>	
<b>Ikastetxeen ikuskatzea</b>	<b>Ikasturte hasieraren eskuhartzea.</b> Bisita bat gutxienez, ikastetxe mota edota laginaren arabera					<b>Ikastetxearen jardura jarraipena</b> Bisita bat gutxienez, ikastetxe mota edota laginaren arabera				<b>Ikasturte bukaerako eskuhartzea</b>	
<b>LHko programen jarraipena</b>	<b>2012-13ko HEZIBI jarraipena</b> <b>2013-14 ko HEZIBI kontrola</b>					<b>2013-14 ko HEZIBI jarraipena</b>					
<b>Eskaeraren ondoriozko jarduerak</b>											

Oporrak: Gabonetakoak: abenduaren 20tik urtarrilaren 7ra bitartean; Aste Santukoak: apirilaren 11tik, astelehena, apirilaren 28ra, ostirala, bitartean.

## II. ERANSKINA

### 2013-2014ko IKUSKARITZA PLANAREN PROZESUAK ETA AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

#### Ebaluazioa

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Ikastetxeen ebaluazioa</b>										
V92 0210 01	Kalitatea kudeatzeko sistemaren ebaluazioa (SGC - Kalitatea Hezkuntzan)	1. eta 2. hiruhilekoa	Ikastetxeari buruzko txostena	Aud. arabera	Kalitatea kudeatzeko sistema duten ikastetxeak	JA Romero	Marina Garcia M. Miguel K. Totorikagüena J. A. Fernández X. Egizabal	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	EAE	
0201 05	Diagnostikoaren ebaluazioa.	Ikasturte osoa	Ikastetxeari buruzko txostena	2. eta 3. hiruhilekoa	Lehen H eta DBH ko ikastetxeak	J.A.Romero J. Granja	R. Juan B. Díaz P. Macho JM Santiago N. Arroita G. del Río A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Irakasle-funtzioaren ebaluazioa</b>										
0201 10	Zerbitzu-eginkizunak.	2. eta 3. hiruhilekoa	Banakako txostena	Esk eta deialdi arabe	Eskaera eta deialdi guztiak	J. Granja	P. Antoñana A. Mendiola M Bermeosolo G. Gomez de Segura	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Lurraldea	
0201 11	Irakaslea lanpostuaren perfilera nola egokitzen den ebaluatzea	Ikasturte osoa eskaera arabera	Banakako txostena.	Esk. arabera.	Eskaera guztiak	J. A. Ayucar	Jefes-as Territoriales	Erreferentziak o ikuskariak	Lurraldea	
0201 12	Irakaslea irakaskuntzarako gai den ebaluatzea	Ikasturte osoa eskaera arabera	Banakako txostena	Esk. arabera.	Eskaera guztiak	J. A. Ayucar	J.I. Molinuevo I. Tazón M. Hernandez I. Bernaola J. A. Rey A. Paniego	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

## Ebaluazioa

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Irakasle-funtzioaren ebaluazioa (jarraian)</b>										
V92 0210 13	Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa (LEP).	Ikasturte osoa	Banakako txostena.	2. eta 3. hiru hil ekoa	Saileko ikastetxe publikoak	P. Bilbatua	P. Antoñana M.J. Morgado A. Laka	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa</b>										
0201 20	Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	1. eta 2. hiru hilekoa	Banakako txostena	3. hiru hil ekoa	Lau urteko zuzendariak	J.A. Ayucar M. Ruiz	M Jauregui A. Fernandez I. Cereceda S. Ayarza I. Echeverria X Balerdi	Erreferentziak o ikuskariak + Taldea	Zonaldea	
<b>Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa</b>										
0201 25	Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa	Ikasturte osoa	Banakako txostena	2. urtearen bukaran	Z. E. tan dauden ikuskariak	JA Romero J.A. Ayucar	JI Molinuevo B. Manzarbeitia T Murguialday	Lurralde buruak, zonalde buruak, tutoreak	Lurraldea	

## Ikastetxeen ikuskatzea

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
0202 07	Hasierako Lanbide Trebakuntza programen kontrola eta jarraipena	Iraila, ekaina, uztaila	Banakako txostena	Esk. araber a .	Eskaera guztiak	F. Bilbatua	Marivi García A. Arenaza G. Gabantxo J. Jiménez	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
V92 0230 08	Etxean arreta emateko programaren kontrola eta jarraipena..	Ikasturte osoa eskaera arabera	Banakako txostena	Esk. araber a .	Eskaera guztiak	J. Granja	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Eskolatzeko programa osagarriak</b>										
0202 24	Eskolatzeko programa osagarrien eskaeren balorazioa.	Ikasturte osoa eskaera arabera	Banakako txostena	Esk. araber a .	Eskaera guztiak	J. Granja	Marivi García J.S. Gartzía B. Salve J Jimenez	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Haur eskolak</b>										
0202 40	Udal eskolen eta 0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiruilekoa	Ikastetxe txostena, laginaren arabera	3. hiruilekoa	Haur H. Ikastetxeak 0-3	M. Ruiz	R Saez de Cortazar J Solabarrieta C. Marina A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 41	Haur-eskolen kontrola eta jarraipena .	2. eta 3. hiruilekoa	Ikastetxe txostena, laginaren arabera	3. hiruilekoa	Haurresk.	M. Ruiz	R Saez de Cortazar J Solabarrieta C. Marina A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua</b>										
0202 50	Eskola Ekintzaren Agiriaren (EEAren) arau-kontrola.	1. eta 2. hiruilekoa	Ikastetxe txostena, laginaren arabera	2. hiruilekoa	Ikastetxe guztiak	J. A. Ayucar	J. Perez J Solabarrieta E Valencia J.A. Sanchez A.F. Gonzalez D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

## Ikastetxeen ikuskatzea

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua (jarraian)</b>										
0202 52	Ikastetxeen dokumentazio eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa.	Ikasturte osoa	Ikastetxe txostena	Laginen araberak	Ikastetxe guztiak	J. Granja	C. Aparicio N. Zabaleta J.A. Rey J A Fernández	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
V92 0230 53	Ikastetxe publikoetako irakasleen eta hezkuntza-pertsonalaren absentismoaren kontrola.	Ikasturte osoa	Banakako txostena ./ Ikastetxe txostena	Kasu araberak	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Ayucar	J. Pérez J. A. Sánchez M. Muñiz D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak + Taldea	Zonaldea / Lurraldea	
0202 55	Eskola-egutegiaren kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiru hilabeteak	Ikastetxe txostena	30/06	Ikastetxe guztiak	J. A. Ayucar	J. Pérez F. Martín I. Larrinaga D. Mazuela	Ikuskari Taldea	Lurraldea	
V92 0230 59	Zuzendaritza-taldeak izendatzeko proposamenen kontrola	3. hiru hilabeteak	Ikastetxe txostena	3. hiru hilabeteak	Ikastetxe publiko guztiak	F. Bilbatua	Mariví García Z. Isuskiza F. Martín X. Egizabal	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
V92 0230 60	Zuzendaritzakoak ez diren karguak izendatzeko proposamenen kontrola	1. hiru hilabeteak	Ikastetxe txostena	20/12	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Ayucar	J. Perez M. Casado J.A. Sanchez D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Curriculumak</b>										
0202 71	Programazio didaktikoak ikuskatzea eta kontrolatzea	Ikasturte osoa			Ikastetxe guztiak		R. Juan P. Macho I. Cereceda M L Olan			Hurrengo ikasturterako jardueraren plangintza

## Ikastetxeen ikuskatzea

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Curriculuma</b>										
0202 73	Norbanakoaren curriculum-egokitzapenen (NCE) eskaeren kontrola eta jarraipena	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	20/12	Proposamen guztiak	J Granja	C Aparicio A.F. Gonzalez L Torrealday B. Diaz P. Macho D Mazuela	Ikuskari taldea	Lurraldea	
0202 74	Aratu gabeko prestakuntza-programen kontrola Helduen Hezkuntzako ikastegi publikoetan.	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	20/12	Proposamen guztiak	J. Granja	R Saez de Cortazar L. Orueta X. Etxebarria P. Carnicero	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
<b>Irakasleak eta ikasleak</b>										
0202 81	Ikasleen diziplina-espedienteen kontrola	Ikasturte osoa	---	Kasu araber a	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	Jefes-as Territoriales	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 83	Euskaratik salbuesteko kasuen kontrola .	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	20/12	Eskaera guztiak	J Granja	R Abasolo N Zabaleta B Salve E Valencia M.M. Olabarriaga R. Bergaretxe	Ikuskari taldea	Lurraldea	
0202 85	Irakasleen titulazioen kontrola	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetxe T. laginaren arabera		Ikastetxe pribatuak	F. Bilbatua J. Granja	R. Juan M. Hernández M Bermeosolo S. Ayarza E Gumucio A. Paniego	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 86	Ikasleen absentismoaren kontrola	Ikasturte osoa	Ikastetxe T. EAE Txostena	Kasu araber a	Derrigorrez irakaskuntz ako ikastetxeak	J. A. Ayucar	Marina García R. Terán I. Cereceda P. Carnicero	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

## Ikastetxeen ikuskatzea

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Irakasleak eta ikasleak (jarraian)</b>										
V92 0230 87	Ikasleen arteko larderiak eta tratu txarrek duten eraginaren kontrola eta jarraipena .	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Kasu araber a	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero M. Ruiz	I. Pardo JM Santiago L. Torrealday A. Fernández R. Aliaga L. Isasa	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 91	Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuen kontrola eta jarraipena	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Kasu araber a	Ikastetxe guztiak	J. A. Ayucar	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 92	Pertsonalaren eta ikasleen greben kontrola.	Ikasturte osoa	EAE ko T	Kasu araber a	Ikastetxe guztiak	J. A. Ayucar	J. Pérez J. A. Sánchez G. Larruzea D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 93	Maila guztietako akta akademikoen kontrola eta ikuskatzea.	3. hiru hilekoa	---		Ikastetxe guztiak	J. Granja	C. Aparicio N. Zabaleta J.A. Rey J A Fernández	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
V92 0230 95	Enplegatu publikoaren diziplina-erregimenaren aplikazioa	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Kasu araber a	Ikastetxe publikoak	J. A. Romero	J.I. Molinuevo J.A. Rey M. Miguel I. Bernaola J.A. Fernandez A. Paniego	Formakuntza duen ikuskariak	EAE	



## Eskaerei arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Hezkuntza Sailak eskatu eta Ikuskaritzak planifikatzen dituen jarduerak</b>										
0204 01	Ikuskaritzak planifikatutako lankidetzak-jarduerak	Jasotako eskaeraren eta finkatzen diren argibideen arabera.				J. A. Romero	Ikuskaritza nagusia edo ardurak jasotzen duen taldea	Argibideen arabera		
<b>Hartzaileei eman beharreko unean uneko erantzuna</b>										
V92 0230 01	Eskaerak/Jakinarazpenak	Ikasturte osoa	Banakako txostena esk. arabera	Hilabete bateko epea	Eskaera eta ikastetxe guztiak	J. A. Romero J A Ayucar	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak edo esleitutako ikuskariak	Zonaldea	

<b>Hezkuntza Sailarekin lankidetzan egiteko jarduerak (kodetu gabe)</b>										
	Atxikipenak	Zehazten diren argibideen arabera							Zonalde buruak	
	Batxilergoko sari bereziak	Zehazten diren argibideen arabera							P Antoñana, L Orueta, E Valencia, J. Fernández	
	Hezkuntza Marko Hirueledun	Zehazten diren argibideen arabera							P. Antoñana, J.S. García, L. Dorronsoro	
	Jazarpenaren Aginduan oinarrituriko bitartekaritza	Zehazten diren argibideen arabera							M. Garcia Perea, L. Torrealdai, A. Mendiola, A. Uranga	
	USP (Hautaprobak)	Zehazten diren argibideen arabera							Irakasgai koordinatzaileak	
	LH sarbide probak	Zehazten diren argibideen arabera							L. Salgado	
	Prestakuntza eta lanaldia alternantzia (HEZIBI)	Zehazten diren argibideen arabera							K. Arriaga, Z. Isuskiza, B. Salve, L. Salgado, X. Eguizabal, A. Paniego	
	Eskolarizatzeko-batzordea	Zehazten diren argibideen arabera							Lurralde buruak	
	Lekualdatze leihaketa baremazioa	Zehazten diren argibideen arabera							Batzordeko presidentek	

## Ikuskaritzaren barne jarduerak

Kalitate batzordea (Kalitatea kudeatzeko sistemaren azpibatzerdea)	J. Romero, JA Ayucar, J.I. Molinuevo, M. C. Fernández, J.A. Sánchez, L. Torrealday, X. Egizabal, L. Isasa, ,
Gogobetetzearen neurketa	J. Romero, JA Ayucar, R. Juan, K. Totorikagüena, L. Isasa.
Eskuhartze orokorraren metodologia	J Romero. M Ruiz, R Juan, I. Pardo, J. M. Santiago, P. Macho A. Oianguren, G. del Rio
V92 ezarpen informatikoa	J. Romero, J.A. Ayucar, R. Abasolo, R. Saéz de Cortazar, J.A. Sánchez, F. Martín, M. Muñiz, D. Mazuela, X Egizabal
Estilo eskuliburua (Euskeraz)	

**III. ERANSKINA**

**(IKUSKARITZA PLANAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK)**

Helburua	Kalitate-ezaugarria	Adierazlea	Onartzeko irizpidea	Epea	Arduraduna
Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzea.	Hobekuntzarako laguntza ematea.	2010ean selekzionatutako zuzendarien balorazioaren batezbestekoa, ebaluazioak haien funtzioa hobetzeari eman diona (Otik 10erako eskalan).	≥ 7	2014-06-30a	IKUSKARITZA NAGUSIA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxeetan kontrolatzeko eskatu duen programa eta proiektuen garapena ikuskatzea.	Jasotako datuetatik abiatuz ondorioak lortzea.	HEZIBI proiektuari buruzko txostena, ondorioekin eta Administrazioarentzako proposamenekin.	S/N	2014-06-30a	IKUSKARITZA NAGUSIA
		HAUSPOA proiektuari buruzko txostena, ondorioekin eta Administrazioarentzako proposamenekin.	S/N	2014-06-30a	
		MET proiektuari buruzko txostena, ondorioekin eta Administrazioarentzako proposamenekin.	S/N	2014-06-30a	
Indarreko legeria eta, ikasturte honetan batez ere, itunpeko ikastetxeetako irakasleen titulazioak betetzen diren kontrolatzea, irakasgaien arauak eta irakasleen lanaldiak betetzen diren kontrolatzea.	Titulazioen, irakasgaien orduak betetzearen eta irakasleen lanaldiak betetzearen arloko indarreko legeria nola betetze den ezagutu eta informazio hori Administrazioari jakinaraztea.  Kudeaketa hobetzeko lagungarri izatea (giza baliabideen optimizazioa)	Itunpeko ikastetxeetako irakasleen titulazioak egokitzeari buruzko txostena eta antzemandako ez betetzeak zuzentzeko proposamena.	S/N	2014-06-30a	IKUSKARITZA NAGUSIA
		Ikastetxeetan ematen diren arloen araudia zein mailatan betetzen den jakiteko txostena, gerta daitezkeen ez betetzeak zuzentzeko proposamenak azaldu beharko dituen.	S/N		
		Irakasleen lanaldietan orduak banatzeari buruzko txostena, hobekuntza-proposamenak egingo dituen.	S/N		



Helburua	Kalitate-ezaugarria	Adierazlea	Onartzeko irizpidea	Epea	Arduraduna
Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzea, indarreko legeriaren arabera eta, batez ere, haien osotasun fisiko eta emozionala errespetatzeko eta elkarbizitza positiboaren giro batean erabateko hezkuntza jasotzeko ikasleen eskubideari begira.	Antzemandako tratu txarren kasuen jarraipena hobeto egitea. Ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko lagungarri izatea.	Ikastetxeek aurrera eramandako kudeaketari buruzko ikuskarien balorazioa.  Egin eta aurkeztu den elkarbizitza-planaren eredia.	≥ 7  S/N	2014-06-30a	IKUSKARITZA NAGUSIA
Hezkuntza Ikuskaritza antolatu eta kudeatzeko eredia gaurkotzea.	Antolaketa hobetzea	Egin diren dekretu- eta agindu-proiektuak.	S/N	2014-03-31	IKUSKARITZA NAGUSIA
	Kalitate-adierazleak berrikusteko prozedurari hasiera ematea.	Prozesu-adierazleen eta azpiprozesuetako ekipoen aldetik eskuratu diren lorpenen proposamena.	≥ 4 AZs	2013-11-30a	
ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea, zerbitzua hobeto emateko.	Sistemaren hobekuntza.	Kanpo auditoria 2013an	Ziurtagiriarekin jarraitzea	2013-07-31	IKUSKARITZA NAGUSIA
Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuna ematea.	Erabiltzaileak gusturago egotea.	Selekzionatutako erabiltzaileen balorazioaren batezbestekoa (0tik 10erako eskalan) (1. itema: zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesta)	≥ 7	2014-06-30a	IKUSKARITZA NAGUSIA
Urteko Plan honen ondoriozko premien arabera ikuskariak prestatzea.	Gaitasun profesionalaren hobekuntza.	Ikasturte honetan egin diren prestakuntza-jardueretan profesionalki aritzeko prestakuntza horren eraginkortasunaren batezbesteko balorazioa (0tik 10erako eskalan).	≥ 6	2013-07-31	IKUSKARITZA NAGUSIA
Hizkuntz normalkuntzari laguntza emateko asmoz, euskararen erabilpena sustatzea.	Hizkuntz normalkuntzari laguntzea.	Estilo-eskuliburu bat egiteko lan-talde bat eratzea.	S/N	2013-10-30a	IKUSKARITZA NAGUSIA

## IV. ERANSKINA

### PRESTAKUNTZA-PLANAREN JARDUERAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDU KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK
<b>BARNE ETA KANPO EBALUAZIOEN EMAITZAK.</b>	2012ko PISA ebaluazioaren, 2013ko diagnostiko-ebaluazioaren eta EHUren ikerketa-ebaluazioaren emaitzak aurkeztea.	2014ko URTARRILA-MARTXOA	10	IKUSKARI GUZTIAK
<b>ESKU-HARTZE PROFESIONALERAKO INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA EMATEA. IRIZPIDEAK BATERATZEA.</b>	Urteko Planean aurreikusitako esku-hartzeetan jarduteko irizpideak eta prozedurak bateratzea.	2013ko URRITIK 2014ko EKAINERA	15	IKUSKARI GUZTIAK EDOTA ZONALDE MAILAKO IKUSKARI ARDURADUNAK
<b>EUSKARA ERREDAKTATZEKO TEKNIKAK ETA BALIABIDEAK. IKUSKARITZAREN OHIKO IDAZKIETAN EUSKARAZ GEHIEN ERAGILTZEN DEN TERMINOLOGIA BATERATZEKO GAURKOTZEA.</b>	Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak euskaraz egiteko erabili behar diren teknikak eta hizkuntz baliabideak birpasatzea. Ikuskarien prestakuntza gaurkotu eta zabaltzea, Ikuskaritzak normalean erredaktatzen dituen idazki motetan terminologia egokiena erabiltzeko orduan.	2014ko OTSAILETIK MARTXORA	25 X 2	BI IKUSKARI TALDE
<b>EUSKARA</b> Administrazio-hizkuntza	Administrazio-hizkuntzaren gaurkotzea.	2014ko URTARRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<b>IKUSKARITZAREN JARDUNALDIA (2013-14)</b>	2013-2014ko Urteko Plana eta berorren jarduera inportanteenak 2012-2013ko ikasturtearen memoriaren ondoriozko emaitza gisa eta Hiru Urteko Planaren testuinguruan kokatzea.	2013ko IRAILA	5	SAIO BAT IKUSKARI GUZTIEKIN
<b>BERDINEN ARTEKO JAZARPENA ETA BITARTEKARITZA GATAZKETAN</b>	Tratu txarren kasuen kudeaketa V92ren bidez aurkeztea. Kasuak aztertzea.	2013ko IRAILA	10	IKUSKARI GUZTIAK
<b>ELKARBIZITZA-PLANA</b>	Segurtasun Sailarekin lankidetzan jarduteko ereduak aurkeztea.	2013ko URRITIK ABENDURA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<b>ARAUDIAREN GAURKOTZEA</b>	LOMCE araudi berriaren aurkezpena, irakasleen titulazioak...	2013ko URRITIK 2014ko EKAINERA	10	IKUSKARI GUZTIAK



PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA	HEBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDU KOPUR UA	PARTE-HARTZAILEAK
<b>DIZIPLINA-ESPEDIENTEAK</b>	Ikuskari talde batekin sakontzea diziplina-espedienteak irekitzeko prozesuan. Beste talde batzuekin prestakuntzari hasiera ematea.	2013ko IRAILETIK URRIRA	15 X 2	BI IKUSKARI TALDE
<b>ALDERDI JURIDIKOAK</b> ADMINISTRAZIO-PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK	Ikuskariaren jarduera definitzea, administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren marko orokorrean.	2014ko URTARRILETIK EKAINERA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<b>SAILEKO APLIKAZIO</b> <b>INFORMATIKOAK EZAGUTU ETA</b> <b>ERABILTZEA</b>	Ezarritako tresna informatikoak zehazten diren prozesuetan ezagutu eta erabiltzea.	2013ko URRITIK 2014ko EKAINERA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<b>ZUZENDARITZA-FUNTZIOAREN</b> <b>EBALUAZIOA</b>	Lehen ebaluazio-aldiko ebaluazioaren emaitzak aurkeztea. Jarduteko diseinu berria eta berrikusi diren materialak aurkeztea.	2013ko URRIA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<b>BITARTEKARITZA</b>	Lan-jazarpeneko gatazketan bitartekari gisa jarduteko teknketan sakontzea.	2013ko URRIA	10	BITARTEKARITZA-TALDEKO IKUSKARIAK

## V. ERANSKINA JARDUERA ZUZENTZAILEEN PLANA

### 2014ko BARNE AUDITORIAN JARDUERA ZUZENTZAILEEN PLANA

JARDUERA	Egitearen arduraduna	Egiteko epea
Lurralde mailako Urteko Planetan kontrol espezifikoak eta barne komunikazioaren arduradunak zehaztea.	Lurralde Burutza	Urteko Planaren argitalpena
Erantzunik gabeko edo epez kanpoko "eskaera eta jakinarazpenen" kasuen aldizkako kontrola egitea, AR 0401 03 C agirian deskribatzen den legez.	Lurralde Burutza	Urteko Planaren argitalpena
Azpiprozesu bakoitzeko ekipoen lidergoa, kudeaketaren arduradunak diren aldetik, indartu behar dela eta azpiprozesuko ekipoen funtzioa sustatu behar dela Urteko Planean aipatzea.	Ikuskari nagusia	Urteko Planaren argitalpena
Kudeatzeko sistema hobetzeari buruzko atal hori (NNCCen eta hobekuntzen aipamena) Urteko Planean sartzea.	Ikuskari nagusia	Urteko Planaren argitalpena
Administrazio-pertsonalarentzako harrera-plan espezifiko baten diseinua egitea (gehienezko iraupena: goiz bat eta haien lanpostuan). PR 03 02ren berrikuspena. Pertsonal berriaren harrera.	Kalitate Batzordea	2013-12-31
Eskaera berezien kasuetan batera jarduteko argibide batzuk Lurralde Ordezkaritzekin hitzartzea; ondorengo kasuetan esate baterako: "lanpostuaren perfilera egokitzea", "irakasteko gaitasunaren ebaluazioa", "enplegatu publikoaren diziiplina-erregimena", ziurtagiriak, bisak, beste departamentu batzuen idazkiak egitea, ikuskariaren azken txostenaren ondorengo jarduerak,...	Ikuskaritza Nagusia	2013-12-31
V92 aplikazio informatiko berria eta Hezkuntza Sailak ezarritako gainontzekoak erabiltzeko antolaketako pertsonal guztiari behar adina prestakuntza eta entrenamendua eman behar izatea azpimarratzea. Aplikazioak ezartzeko prozesua bertan behera egon da, baliabide faltarengatik, eta, planifikatutako hobekuntzetatik abiatuz, harekin jarraitu behar da.	Aplikazio informatikoen arduradunak	2013-12-31
"Lurralde mailako Urteko Plana" agiria eta beronen egitura Ikuskaritzaren barneko web orrian sartzea.	Zuzendaritzako ordezkaria	2013-06-15a
AZ 0202 86, ikasleen absentismoaren kontrola, berrikustea. Kontrol-orrira gehitzea.	Azpiprozesuko ekipoa	2013-12-31
V92 aplikazioa.: AR 0401 03 argibideak gaurkotzea. Prestakuntza gauzatzea.	Kalitate Batzordea	2013-10-15a
2013-14ko Urteko Plan errealista bat diseinatzea 2013-14ko Urteko Planaren barruan.	Ikuskari nagusia	Urteko Planaren argitalpena

## 2013ko KANPO AUDITORIAN JARDUERA ZUZENTZAILEEN PLANA

JARDUERAK	Gauzatzearen arduraduna	Egiteko aldia
Prozesuen definizioa, kudeaketarako V92 aplikazio berrira sartzean, gaurkotzea.	Kalitate Batzordea	2013-2014ko ikasturtea
AZ berrikusi eta gaurkotzea, esku-hartze globala. Esku-hartze globalaren erregistroetan informazioa errefortzuko planekin bikoiztuta dagoen aztertzea.	Azpiprozesuko taldea	2013-10-15a
Ikastetxeetan esku-hartze globalak izateko prozesuan aurrera egiteko aukerak aztertzea, Hezkuntza Errefortzuko Planen jarraipena eta kontrola egitearen ildotik.	Azpiprozesuko taldea	2013-10-15a
Ondorengo puntuak jasoko dituen informazio-protokolo bat egitea: zer dakar NCE batek ikasle batentzat? Hezkuntza-Premia Berezien zerrendetan egoteak zer dakar?... informazio hori ikastetxeetatik familiei banatzeko asmoz.. Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuari dagokio hobetzeko aukera honen edukia eta zerbitzu horri egingo zaio NCE duten ikasleen familiei edo legezko tutoreei informazio orokorra emateko agiri bat sortzeko proposamena.	Zuzendaritzako ordezkaria	2013-09-30a
Errefortzu Plan guztietan jarraipenaren data eta helburu partziala definitu behar izatea berrikustea. Adibidez: iraupen gutxiko Errefortzu Plana.	Kalitate Batzordea	2013-2014ko ikasturtea
Jarduera-adierazleen erregistro guztiek erregistro formala behar duten aztertzea. Sistemaren gaurko errekerimenduak aztertzea.	Kalitate Batzordea	2013-2014ko ikasturtea
PR 0202 20 Zuzendaritzaren funtzioaren ebaluazioa prozesuari buruzko AZren aldatzea falta da. Ahal den neurrian, zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko txostenetan proposatzen diren jarduerak konkretatzea. AZ 0201 20ri buruzko ER berrikustea.	Azpiprozesuko taldea	2013-09-30a
PR 0202 73 prozesuan informazioa alde guztiei egiaztatuko zaiela bermatzea; curriculum-egokitzapen esanguratsuen eskaeren kontrola; NCE duten ikasleen familiei edo legezko ordezkariari informazio orokorra emateko agiri bat sortzeko proposamena egitea Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuari. Halaber, dokumentazio orokorrean (W67) item bat, agiri hori entregatu dela erregistratuko duena, sartzera proposatuko da.	Zuzendaritzako ordezkaria	2013-09-30a